

Donostian, bildu dira: Etxaide jauna, buru, ta Lekuona, Arrue, Gorostiaga ta Irigarai jaun euskaltzainak. Alvarez, Irigoyen eta Zugasti jaun urgazleak.

Mitxelena jauna Salamanca-ko Unibersidadera ikastaro bat emoten joana da eta ezin etorri izan da.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Leengo agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Irigoyen-ek diño Altube jaunak Euskaltzaindiari eskeiñiko liburuak jaso direala. Eskerrak emon bekioz Altube jaunari bere emoitza balioitsu onegaitik.

Txinpartak zuzendu dauen karta bat irakurri da. Diño euren bizilekua ez tala aurreko kartearen buruan agertuten zana. Euskaltzaindiaren etxea dala euren bizileku bakarra. Eskatuten dabe Euskaltzaindiak esan deiela zer modutan jarraitu leien. Erantzun bekie esanik Euskaltzaindiaren etxean ezin egon leitekeala beste entidaderik eta bein eta betiko Txinpartak-ren egintzak Euskaltzaindiaren agintzen barruan finkatuteko puntu oneik bete bear direala: R. M. Azkue katedrea izango da Euskaltzaindiaren aurrean Txinpartak-en egintza guztien responsabilidadea dauena. Bere bidez eta eskribuz eskatu bear jako Euskaltzaindiari edozein lekutan gentearen aurrean agertuteko baimena eta baita beste edozer gauzatarako, eta Euskaltzaindiak baietza edo ezetza emoteko eskubidea izango dau. Agerketa bakotxeko gora beera guztiak jakinerazo bear jakoz Euskaltzaindiari. Euskaltzaindiak dauen jokabide bat imini bekie begien bistan: euskerearen estudio eta zaintzeagaz zer ikusirik eztaben uste eta jokabideakatik bere edozein kideri etorri leiozan responsabilidadeak ez tita bere bizkarrean artzen eta guztiz aldentuten da euretatik.

Domingo Agirre novela-sariko epea urtearen azkenerarte luzatuten da.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.